

EH Bildu talde politikoa

Grupo político EH Bildu

Ijentea, 1 - Tel. 943481027 - www.donostia.ehbildu.eus -
20003 Donostia

Donostiako suhiltzaileen hurrengo LEPei buruzkoa

Reyes Carrere Zabalak , EH BILDU udal taldeko zinegotziak, Udalbatzaren Organo Araudiaren 98. artikulua oinarri, mozio hau aurkezten du Udalbatzan azter dadin. Mozioa 2023ko apirilaren 24an Zerbitzu Orokorren Batzordean aztertutako interpelazioaren ondorioa da.

JUSTIFIKAZIOA

Donostiako suhiltzaileen zerbitzuko langileen ordezkari sindikalek kezka eta haserrea adierazi digute; izan ere, diotenez, urrian Arkautek eta Eusko Jaurlaritzak kudeatu zuten Araba eta Gipuzkoako suhiltzaileen hautaketa-prozesuan irregulartasun ugari izan ziren azterketetan, eta, horrez gain, erabilitako hautaketa-irizpideak ez zetozen bat eskainitako plazek behar duten trebetasun praktikoeekin. Eta suhiltzaileen kolektiboaren irizpidearen arabera, horrek eragina zuzena izan dezake zerbitzuaren beraren kalitatean.

Langileen Batzordetik jakinarazi digutenez, sindikatuei ez zitzaien aukerarik eman negoziazio-esparru ofizial batean ekarpenak egiteko, eta azpimarratu dute azken emaitzan gehiegizko garrantzia eman zaiela proba psikoteknikoei, lana eraginkortasunez egiteko behar diren ezagutza praktiko eta espezifikoak ahalik eta gehien murriztuz.

Diotenez, irregulartasunak hainbestekoak izan ziren, non segurtasun juridikorik eza eragin zuten hautagai askorengan: diskriminazio-egoerak, azterketa geografikoko bi eredu egin baitziren; zuzentzeko irizpideetan azken momentuan egindako aldaketak, legez ezarritako prozedura bete gabe; azterketari buruzko galderei erreklamazioak aurkezteko epe nahikorik ez edota oinarrietan aurreikusi gabeko birbaremazioa. Gainera, ariketa osoa euskaraz egiteko eskubidea ukatu zitzaien hautagaiei.

EH Bildu talde politikoa

Grupo político EH Bildu

Ijentea, 1 - Tel. 943481027 - www.donostia.ehbildu.eus -
20003 Donostia

Hitz gutxitan, Gipuzkoako eta Arabako suhiltzaileen LEParen kudeaketa erabateko desastre bat izan da. Eta Langileen Batzordearen arabera, akats eta irregulartasun horiek eragin negatiboa izan lezakete hiriko suhiltzaileen parkean, baldin eta Udal Gobernuak erabakitzen badu horrelako kudeaketa egitea Donostiako Prebentzio, Su Itzalketa eta Salbamendu Zerbitzuaren hurrengo lan-eskaintza publikoetan.

Eta hori gerta ez dadin, funtsezkoa da Udal Gobernuak prebentzio neurriak hartzea eta Arkautek kudeatutako LEParen akats berak ez egitea. Horretarako, Udal Gobernuak ordezkari sindikalekin negoziazio markoa aktibatu behar du, non adostuko diren, batetik, hautagaien ezagutza teoriko eta praktikoen ebaluazioari buruzko irizpideak, eta, bestetik, legezko prozesuak eta hautagaien eskubideak bermatzeko kontrol-mekanismoak. Horrela bakarrik ziurtatu ahal izango du Udal Gobernuak prozesu zuzen eta gardena egingo duela Donostiako suhiltzaileen parkerako lan-eskaintza publikoaren hurrengo deialdietan; hautagaien eskubideak errespetatzeko, donostiar komunitatearen mesederako eta suhiltzaileen zerbitzua hobetzeko.

Gaiaz interpelatuta, Udal Gobernuak ez du konpromiso argirik agertu.

Hortaz, behean sinatzen duen zinegotziak honako MOZIO hau aurkezten du:

KONTROL MOZIOA

1.- Udalbatzak hertsatuki eskatzen dio Udal Gobernuari negoziazio-mahaia aktiba dezala eta Udaleko Langileen Batzordearekin batzartu dadila, marko ofizial horretan negoziatzeko Donostiako suhiltzaileen parkerako eskaintza publikoko hurrengo deialdietan eskainiko diren lanpostuei buruzko beharrezko ezagutza eta trebetasunen balorazioa.

EH Bildu talde politikoa

Grupo político EH Bildu

lJentea, 1 - Tel. 943481027 - www.donostia.ehbildu.eus -
20003 Donostia

2.- Udalbatzak hertsatuki eskatzen dio Udal Gobernuari konpromisoa har dezala Donostiako Prebentzio, Su Itzalketa eta Salbamendu Zerbitzuko langileen hurrengo hautaketa prozesuak zuzenean kudeatzeko.

3.- Udalbatzak hertsatuki eskatzen dio Udal Gobernuari ez dezala inolako kudeaketa-mandaturik egin, baldin eta ordezkaritza sindikalak eta inplikaturako kolektiboak, zalantzarik gabe eta gehiengoz, akordioaren bat dagoela adierazten ez badu, aldez aurretik esparru ofizial batean negoziatuta, eta gehiengo hori hautaketa – prozesu orokor bat egiteko ados ez badago.

Donostian, 2023ko apirilaren 28an

Reyes Carrere Zabala
EH Bildu udal taldeko zinegotzia